

**B**IHARAMUNEKO PILULA ASTE HONETAN bertan jarri dute salgai Frantziako eta Iparraldeko farmazietan. Besins-Iscovesco laborategiek merkataratu dute, eta NorLevo izenarekin bataiatu dute. Lehen esan bezala, edonork eskura dezake pilula, baina hori bai, botikariaren aholkuak eta gomendioak entzun beharko ditu. Pilula nola erabili esateaz gainera, antisorgailuen berri ematen baitute farmazietan.

Urte hasieran onartu zuten Frantzia biharamuneko pilula saltzea, baina sendagilearen errezeta behar zen erosi ahal izateko. Duela hilabete onartu zen legearen arabera, ordea, errezetarik gabe erosi daiteke. Hori bai, lehen 28 libera balio zuen (700 pezeta inguru), eta, orain berriz, 50-60 libera bitartean (1.250-1.500 pezeta bitartean).

### Haurdun geratu edo ez, hartu beharreko pilula

Haurdun gelditzeko arriskuan egon eta haurdunaldi hori aurrera eramanez ez duten emakumeek hartzen dute biharamuneko pilula. Haurdun daudela jakin gabe hartzen dute; izan ere, sexu harremana izan eta 72 ordu igaro aurretik hartu behar da. Eta haurdun ote dauden jakiteko, gutxienez, 10 bat egun behar dira. Badaezpada hartzen den neurria da beraz.

Biharamuneko pilula esatea baino zuzenagoa litzateke pilulak esatea. NorLevo pilulak adibidez, bi dira: bata ahalik eta azkarren hartu behar da; bigarrena, berriz, handik hamabi ordura. Pilula horiek berritasunak badituzte: hasteko, bi bakarrik dira, eta, gainera, ez dute estrogenorik. Ondorioz, kalte gutxiago egiten dio emakumearen gorputzari. «Bularretako mina, botatzeko gogoa, burukomina... hileko mingarri baten sintomak sor daitezke biharamuneko pilulak hartzerakoan. Baina emakume bakoitzaren arabera da hori; gerta daiteke ezer ez sentitzea», adierazi digu Juan Maria Segues ginekologoak. Berak argitu digunez, Frantziako eta Iparraldeko farmazietan salgai jarri duten pilulak 750 mikrogramo levonorgestrel dauzka, hori da osagai bakarra. Oso osagai eza-guna da ginekologia munduan, eta hainbat eritasunetan erabili ohi dute: «Osagai hori kontrazepzio pilula askok daukate. Baina osagai hori bakarrik, kopuru horretan eta biharamuneko pilula gisa, ez dute hemen [Hegoaldean] saltzen», argitu digu. Hegoaldean, eta sendagilearen errezetarekin, neoginona delakoa da biharamuneko pilula gisa gehien saltzen dena. Pilula horrek estrogenoak ditu, eta, gainera, gehiago hartu behar dira. «Goizean bi hartu behar dira eta beste bi iluntzean (12 ordura), hots, egunean lau. Nire iritziz, gainera, hiru egunetan hartu behar dira, nahiz eta batzuek esan bi egunetan hartuta nahikoa dela».

Hegoaldeko sendagileek hainbat pilula erabil-

# Haurdunaldia arriskua saihe

Juan Maria Segues **GINEKOLOGOA**

«Ugaldutako obulua hiru egunen buruan iristen da umetokira, bertako hormari erantsi eta haurdunaldia hasten da. Biharamuneko pilulak, ordea, umetokiari ez dio haurdunaldirako prestatzen uzten. Ondorioz, enbrioia ez da itsasten eta galdu egiten da»

tzen dituzte helburu bera lortzeko, hots, biharamuneko pilula gisa.

Pilularen eraginkortasuna handiagoa da sexu harremanak eduki eta denbora gutxira hartuz gero. Lehen pilula hogeita lau ordu igaro baino lehenago hartuz gero, %99ko eraginkortasuna izango du. Baina eraginkortasuna %85era jaits daiteke beranduago hartuz gero, eta betiere, 72 ordu baino lehenago hartu behar da. Izan ere, umetokiari egiten dio eragin biharamuneko pilulak -ez du uzten enbrioia bertan itsats dadin-, eta lehenbailehen egin behar da hori: «Ugaldutako obulua hiru egunen buruan iristen da umetokira, bertako hormari erantsi eta haurdunaldia hasten da. Biharamuneko pilulak, ordea, umetokiari ez dio haurdunaldirako prestatzen uzten. Ondorioz, enbrioia ez da itsasten eta galdu egiten da». Pilula hartu ondoren, dagokion garaian jaitsiko zajo hilekoa emakumeari, eta hileko mingarri batean senti dezakeen antzeko ondorez gain -kasu batzuetan soilik gertatzen da hala-, ez du aparteko ezer sentituko.

### «Arazo bati irtenbidea emateko pilula da; ez da antisorgailua»

Biharamuneko pilula ez da antisorgailua. Antzeko osagaiak dituzte, baina biharamuneko pilulak kopuru handiagoan, eta bere tratamendua, gainera, gogorragoa da. Hori dela eta, hobe da neurriak sexu harremanak izan aurretik hartzea, emakumearen gorputzarentzat biharamuneko pilulak ez baitakar onik.

Askabideko sexologo Luis Elberdinek esan digunez, bikote asko biharamuneko pilula eske etortzen dira, kondoia hautsi zaiela esanez, «eta hori, gehienetan, gezurra izaten da», esan digu sexologoak; «bestela, kondoia egiten dituzten enpresa gehien aurka salaketa jarri beharko genuke!», gaineratu digu. Zehaztu digunez, nahiko zaila da kondoia haustea, «baina aitzakia hori erabiltzen dute askok, zailagoa baita esatea neurririk hartu gabe -edota hartu beharreko neurri guztiak hartu gabe- eduki dituztela sexu harremanak».

Luis Elberdinen arabera, nahigabeko haurdunaldiak ez dira ematen sexu harreman gehien dituzten artean: «Noizbehinkako sexu harremanak izaten dituzten artean ematen dira nahigabeko haurdunaldi gehien. Hau da, behin egiteagatik ezer ez dela pasatuko uste dutenen artean».



JACOBA MANTEROLA